

OIHENARTEREN ERAGINA EGIATEGIRENGAN (Oihenarteren itzala Egiategiren obran)

Txomin PEILLEN
euskaltzaina

NONDIK NORAT

Denek ziozüe e'nizala zuberotarra, eta arrazuekin ezpeniz herri hontan sortü. Hanitxek ziozüe eztüdala egiazko xiberotar üskaraz idazten, hor ere arrazu dizüe. Eztait. Egün eüskalki hontan mintzatzen baniz, gure jeialdian behin entzün dadin, gure aitzinekoen errespetüz egiten düt, ez orai entzüten dütüdan ükülkerier behatzez. Non eta noiz dago egiazko ziberotarra? Behin ene familiako frantzimant bat Maulen bazkaitan ari zen eta ondoan, berek sekulan deusereEuskaraz idatzi ez düenak, ari ziren, frantsesez prefosta eta goratik erraiten «il nous embête avec son basque, le vrai souletin, c'est le nôtre» pastoral idazle batez mintzo zirelarik. Arauz, züberotarrek ere entelegatüko näüela uste düt, bardin ezpaniz egiazkoan mintzatzen.

GURE AITZINEKOEN ETSENPLÜ EDERRAK

Lehen, bederen, gure idazle arranoak goragotik hegaltaz ibilten ziren, hortakoz egün zer ispiritü zabala züen Tartas, Oihenart, Egiategi, Intxauspe, Lhande eta besteek, erakutsi nahi neizüeke, amorekatik eta jakin dezazüen Ziberotar zaharren arrenküra handi bat izan dela, beste eüskaldünek entelega detzen, eüskaldün güziek alkar entelega dezen,eüskara bat, eüskara bakotx bat egitez ta gure xokoko eüskaratik gorago hegaltatzez.

Ene xedeak eman ondoan, ene häütüak ezarriz geroz, ene ikerbideak ikus ditzagün. Mintzatzeko emanik zaitan denbora llabürrarekin ene bürüari zedarria ezarri behar deitzot: eztütüt aipatüko,nahiz eüskararen erabilpenaren hobetzen zerbait egin düen, ez Tartas, ez Belapeyre, ez Oihenarte sobera, besteek geia hartü beitüe. Oihenarteren ondokoak eta orozgain Jüsef Egiategi, Oihenarteren ondokoetarik bat izan beita, ikusirenko dütügü.

Aitzinago joan gabe, hona nor zen Egiategi: Joana Felipe de Bela Suediako erregeren kapitainarekin Polonian soldado egonik, Zuberoara erretiratü beittzen, lehenik parropia eskola batetan errejent izateko eta azkenik kolejioko erakasle. Züetarik batzük dakizüen bezala, eüskaraz *Leben libürüa* izeneko filosofia lana egin züan düala berrehün ta hamar urte, sekülan agertü ez zena bere denboran; erdia argitaratü dü Eüskaltzaindiak, bena bere bigerren libürüa Oihenarteri egiten deitzen goresmen ta aipamenekin hasten da eta haren bidea jarraikiz, Egiategiren bigerren libürüa, orano agertü eztena Oihenarteren obrak beno hanitzez lodiago eta nasaiago da

Zer dioen Oihenartez, Egiategik bere *Leben Libürüan*.

Bere Lehen libürü delakoaren «hitzaurrean» hona zer dioen Eüskal literatüraraz idaztean:

Mosde Arnalde Oihenartek dereikü ere ützi liburuñibat *Atsotitzak edo refranak*, izen diana, Parisen moldizkidatia, 1657 urthian. Jarraikiz dereikü beraren *Gaztaroa neurthitzetan* ta azkenekoz *Zaharzaroa neurthitzetan* eman, Pauen moldizkidatia, 1664.urthian Beherago obra harez zerbait dügü erranen (25.orr.)

Hona zer dioen gure idazleak. Zati honetan jakiten dügü ihon ediren ez den Zaharzaroa neurthitzetan Pauen agertü zela, olerki bildüma zela. Nere lehen libürüan Egiategik hitzamaiten dü bere libürüaren azkenean Oihenarteren erran zaharrak emanen ditüala, bena bere Bigerren libürüan hatsarrean düüt ediren, eta bigerren libürü hortan Egiategik bere bürüa Oihenarten ikasle bezala emaiten dü, lehenik erakasleari goresmen lüzeak eginaz:

«Mosde Arlande Oihenarten obretarik dago bata Atsotitzak. Zübe-roan sorthü den ethorki ederrenaren gozamenetarik da *Notitia Utriusque Uasconiae*, hüskaldun herrien iracasaldia dereizküna erakhusten; dena ere bere bilakinda (deskubripen) ederretzaz egiazki miragarria ezi gutik dirade obrak, fama halakoaz Iracasdian (fr. dans la République des Lettres) gozatzen diradianak; haren landan ezkiribazalerik batere, haren laidoriak aipatü eztütianik, ezetare haren mendekoer ber gaian sarpetü eztenik.»

Bizi zeno obra gangiraz (fr. excellent) bi ekhantza zütian eragin hen agortziaz ere zen gozatü. Hantik haren izena hilezindatürik (fr. immortalisé) fama zian bezain jakintsüen eretzian edertü; dü ere haren libürüak alabantza sekülakoa onkaitü, dagoelakoz errana bakantetarik dela bakhantena «inter rariores rarissimus existimatus»

Goraipamen lüze horren ondotik Oihenarten eskü-ezkiribü irakurgaitzak aipatzen dütü:

«Aitoren seme jakintsü haren eskietarik jalki diradian gauza guziek moldekai berá daude düda bagerik. Ezkiribü hanitz zütian

ützi, irakurtü ezinak dütianak arrotzer igaran erazi,damü handia herriri die egin galtzapen halakoa delakoz osoki galgarri.»

Ondotik errepikatzen deikü bi olerki bildüma eginarazi zütiala:

«Haren obretarik dago llibürünibat oraino Parisen parthe, berzia Pauen moldizkidatia, hartan da bidantza erranetzaz mintzo dirade ere han bi berezita, batan bere Gaztezarroaz, berzian bere Zaharzarroaz dütianak sothatzen (?) Mira zian bi obretan erakhustia hüskararen manüa , haren lüma bezalakoaren pian»

Jarraikian atsotitzez mintzo zaikü eta badaki ez direla oro Oihenartek bildürük izan:

«Diradian atsotitzak, hek Kantabriako alortekoak edo Mosde Oihenartenak, hen kokatziak ta gozaldiak (application et explication, fr.)dütü eman; dialakoz, hüskarak berze mintzoen gaintik erran gaberik doatzanaren nabastarria, bakhoizki berboetzaz pairatzian»

Heben Egiategik eüskararen abantailak, bere moztarzüna,bere tinktarzüna goresten dütü, Larramendiren hitzaurre famatü hura eüskaraz emanaz, eta lehen libürüaren hitzaurrean egin düan gisa.

OIHENART, EGIATEGIREN MODELA FILOSOFIAZ IDAZTEKO?

«Urrhün girelarik gizon halakoari pare izan nahiaz, haren obrari jarraiki bat emaitian, gogatü dügü filosofotsü bizipenaren gatik etzagoela baizik:haren gogomenak ere hartakoz dütügü barnerentü

Bi mintzajetan beita Egiategiren *Bigerren libürüa*(lehena filosofiazkoa euskaraz baizik etzelarik)gure idazleak zergatik hala egin düan argitzen deikü, bi arrazu emanez:

«ta dütialakoz frantzesez bihurtü gurietan ber gerthaldia (etsenplua) dügü jarraiki, hüskaldüner frantzesa ikhasi nahi lükienner lana auher(alfer) e'laitekiala ere gogatü.»

Zorigaitzez, bere eüskararen hobetzeko Egiategik Larramendiren hiztegi bihürria baliatü züan zer zepotan erorten zen jakin gabe eta guri haren irakurtzea zailtüz. Ideian aldetik aldiz Oihenarte beno hanitzez hürrünago joan zaikü - agian gogoan zütian eta irakurri zütükian ehün urte lehenago Jakes Belakoak frantsesez eman zütüan «Tablettes» delakoak -ezen, ideiaz bestelako balinbada ber plana segitzen dü, alfabetoaren herrokan euskal hitzak emanez eta «Aberats» hitzarekin hasiz. Oihenartek eman ez dütian eta latinetik, frantsesetik, espanioletik ützüli erran zahar hanitx emaiten dütü bere bigarren libürü lodian, bena beti ondotik etsenplüz eta esplikapenez aberastürük: ageri da azkentan kolejio erakasle izan dela ezen bere eskolarako oharrak beitütü

hola bildü. Ordüan,horrek erran nahi dü bere libürüa agertü ezpazen ere ikasleak üken zütüala Egiategik, hona zer dion... Oihenarteri zor diona berriz aitortzen düalarik:

«Obra hau hirur parhetan erthailtürik dagoena. Lehenak Mosde Oihenartenak, bigerrenak ta hirurgerrenak harenaren üdü-
rialala direnak ez izanik ere irakurtetik gogomenak parropiazko errejent mehe batenak.»

Obraren erditan, bazter batean idatzirik jakiten dügü kolejioko errejent ere izan dela eta düda gabe Oihenarteren diszipülü hau günian Maulen «herriko kolejioan» «Maitre d'Humanité»tarik bat, frantses iraultzaren mezperan, 1785 etik 1792 artino hor nonbait. Hain xüxen Zuberoako Estaduen kondairatik idoki ahal izan dügüna, apür da, bena badakigü eztabaida izan zela Leskarreko Barnabitekin, Mauletarren filosofia erakasle bat jarri nahi zutelako. Maulen kolejio baten ezartzeko eginahalak aspaldikoak ziren, XVI gerren mente azkenean, XVII.mentean eta XVIII.an gorabehera hanitx hortarako, heben llabürki kontatüko dütügünak.

Hamazazpigerren mente hatsarrean Arlande Maitia Lehena Oloruen, ber izeneko hirur apezküpitan lehenak Jesuister Maulen kolejio baten jartea,gogoan sartü zien eta 1614.an erregeren baimen gütüna üken züan; nontik nahi den ondoan dügün jauregi eder hori aisago egin zen eta eztaizkigün estakürüen gatik asmü hori baztertü zen. Ondoko mente azkena, Frantses Iraültza handia beno lehen,egürüki behar beita beste parada baten ezagützeko, Bela Lasalle baten, Joanes batek urteko hamar mila libera emaiten baitzügen, neskatila ta motikoentako bi kolejioren eraikitzeko eta joanarazteko. Barnabitei egin esken-tza ezta бүрүтzen, 1776.an Züberotarrek filosofia erakasle bat nahi beitzügen kolejio hortarako eta hain xüxen Egiategi filosofoa dügü. Azkenik Iraültza beno bospasei urte lehen Züberoako Estatüek bozkatzen düe, hirur erakasle bakotxa 600 libera urtean ordaintürik hitzartzea, biga «Humanité» delakoen erakasteko eta besteak idazten erakasteko. Kolejio zahar hori,segürrik Egiategi-
ren erakaslekü azken urteetan Domenikar seroren komentüan egin zen: orain aldiz «centro comercial» hor dago,beste bizitasun eta beste bide bat hartürrik.

Ideietan, bederen, Egiategik Oihenarte segitü nahi dü, bena ehün urte igaranik, eta XVIII.menxeko helbürü eta xede handiagoeekin,eskola euskaldüntü nahi beitü, ber denboran arrotz mintzajeak eskola horietan sarrerazi, bigerren libürüan erraiten beitü:

«Arrotzak hüskararen khoi eztiradila dakigü, ezetare hüskal-
dunak arrotzetaz egarri handirik»

Hor, bere filosofia libürüan erran badü «Aspaldian dago errana, gizona dela hanbatetan gizon nola mintzo suerte beitaki» arrazu arruntagoa ekarten deikü orai hitz horietan:

«Ezkiridünak berze althe eztiradialakoz frantsesian baizik ari
mintzo, haren ikastian hüskaldünak behardün dirade»

Heben diona argi da administrazioeak eta legekotartzünak bortxatzen dütüala eüskaldünak frantsesaren ikastera. Oihenarteren urteetan etzen holakorik Lextarreko parlamentüan epaileek eüskara jakin behar beitzüan, eta beste herriko gehienek ere bai., bortxaz, Bordelera joan beharrak Züberoa frantsesten dü.

Bi mintzajetan beita Egiategiren *Bigarren libürüa*(lehen eüskaraz baizik etzelarik), gure idazleak zergatik hala egin düan argitzen deikü: bi arrazu emaiten deizkü:

Ta dütialakoz frantzeses (Oihenartek) bihurtü, gurietan ber gerthaldia dügü jarraiki, hüskaldüner, frantzes a ikhasi nahi lükiener lana auher e'laitekiala ere gogatü.

Larramendiren hiztegi bühürriaz ahal bezala baliatzez, Egiategik dio, nola Oihenarte baino hürrünago joan den ezen Jakes Belakoak ehün urte lehenago frantsesez Tablettes-etan egin bezala, gure eüskaltzaleak, erran zaharrak, etsenplü, esplikapen, eta ixtoriaz argitüko dütü, Egiategi - Oihenarte izan ezten gisa, eskola emaile izan beita eta erran zaharra beita bere erakaspenaren abia püntü bat.

OIHENART EZTA EGIATEGIREN MINTZAJE MODELA

Lehen begi kaldütik ikusten da Egiategi ezte la Oihenarteren aditz trinko sisteman sartü, bena haleikere ordüko trajedia ta astolasterretan agertzen diren formak erabilten dütü, nago, dago, nabila dabila, narama, darama ta holakoak irakurtzen beitera.

Hiztegia zen Egiategiren arrenküra nausia, alde batetik ezpeitzüan filosofia eta historiaz idazteko eüskaldün modelarik hanitx eta etzüalakoz altxarabia edo murduilla erdi frantses batetan idatzi nahi; bestalte eüskara batü baten egiiteko asmüa ageri dü. Hona zer dion filosofia libürüaren, hitzaurrean:

«Ehünetan entzünik gaude, hüskaratik lankei honik sorth'ez-taitekiala: badaite othoitze libürü txar zonbaitek diela sinheste hori sorthü ta gogortü; bena izanik ere botxia beno gogorrago mardotüko dügüla dü sinhestia: hartakoz mintzo haren ohoriaren gatik lümari niz heben lothü(Lehen libürüa, 25 orr)

Hitz horietan agertzen da Züberoatik kanpo eüskaldün berritü anitxen arrazua: gure mintzajearen ohorea. Ohore horrek eraman dütü Aita Lhande, Jon Mirande, Allande Boutin ta beste eüskararen ikastera, eta eüskaldün zahar zonbait hala nola Intxauspe, Casenave ta beste eüskararen hobetzera, garbizale bidetik.

Egiategik bere metodoa argitzen deikü, ezpeita gure gizona hitzetan baratü ez eta ibili eüskararen alte erdaraz idazten beste hanitxek egin düen gisa, eta bere xedea züzen da:

«Egiari zor dūdan eginbidiaz dūt lan hau besarkatū, fidantzān dūdala jarriren, hūskara zertan nahi hitz arrotzetaz paira datekiala. Gauza berrietan ere berze mintzoez bezala, beraren izai-riatik hūskaldūn ūnkhūdian izenak arozta litirola» (Aip lib 25 orr.)

Lehen aitoren gisa dio eūskarari etzaiola hitzen sortzea, bere ūnkūdean lantzea ūkatū behar eta eūskara garbiago baten eskeintza egiten deikū, nahiz dakian ez dela lan aisa izanenko. Neke hortzaz, orrialde berean, ber plaman mintzatzen zaikū:

«Llabūr ta argitsū izatia ezta lankhei arhina, ezetare hitz motzetan hanitz erraitia. Orozbat ederki mintzatzia ezta erraile gūzien arraiña: bena erakutsi badūt hūskara xahūki (garbiki) jar daitekiala probatūrik dago hala ere mintza ahal daitekiala (aip. lib.26.orr.)

Hitz horietan Egiategi erakaslearen xedea nabaritzen da, ez da aski ontsa idaztea, ontsa mintzatū, behar beita ere. Egiategik hūrrūntxeago, gogorki mintzatzen eta zūberotar hanitxen gisa, eūskara maite dūen hanitxen gisa diolarik:

«beren ama mintzoa dieno mespretzatzen herriari traidore dirade» (lib.aip.27.orr.)

Eūskara txarraren fama, libūrū zonbaitetarik horra dela azpimarratzen deikū gure filosofoak, hitzaurrean:

«Berze libūrū zonbaitez, erdi latiz, erdi frantzesez josirik direnetarik heben mintzo ezpakirade, hobeki egin ahal lūtūkienez derekie balima barkatūko» (lib.aip.28.orr.)

Azken horiek, libūrū txar egileek, haleikere Egiategiren begietan lekū hobia dūe, ezi erraiten beitū:

«eztereiet aharrarik borondadian eginen..bena egar ta paira eztirot hen hūskara txarra»

Ondotik eūskararen goraipamena ta apologia egiten deikū, bena gure mintzajea erabiliz; nahiz ezten eūskararen hūtser eta nokūer ez ūtsū, ez gor, eūskalkiak aipatzean, Oihenarteren gisa baitio:

«nekez ere beren artian dialarik aditzia ohore beno ogen gehiago dereie (lib.aip.29.orr.)

Bai arrenkūra gaitza eūskaldūnek eūskaraz ari eztūgūla alkar entelegatzen, baina Egiategik hortarako Eūskara batū baten asmūa aipatzen deikū

«zeren eta herri batian galdū dūtian hitzak, berzian beitūtū edirenen, hala hūskara bere osoan dagoelarik haren ohoriari enjogi diradianek, dian hazteriaz sendotūrik ta sekūlan bezain eder agerreraziten beitū (lib.aip.29.orr.)

Oritzen niz nola keaxtzen zen Jon Mirande, Parisen sortüa, euskaldün berria norbaitek erraiten züanean, «hori ezta ene eskuara» bere herri zokoko mintzaira etzelarik eta orozgain norbait hori eskolatürük zelarik alemana anglesa eta zernahi mintzaje arraheinki ikasirik, erraiten züana «ikas beze gük eztügüa ikasi eta euskaldün zaharrek beno nekezago». Bai mintzajeak oro, eta frantsesa ere egon balite etxeko heinean elitazke hon etxetik kanpo erabilteko. Egiategiren euskara batu horrek nahi zütüan euskara osoaren hontarzünak bildü, euskara aberats eta xahü baten egiteko: alemanak eta errusiarrak bide hortatik franko ibili dira, kanpotik sobera hartzez beren mintzajeak bere nortarzüna gal zezan lotsaz.

ZÜBEROTARREK EÜSKARAREN ERETZEAN DÜTÜEN EKARDÜRA, ETA EKARPENEZ

Lehendanik eta Tartasekin Oihenartekin ikusten da, euskara batü baten egiteko asmürük etzüenean ere, beste euskara süberte baten erabilteko ahalkerik etzüela, ez eta beste euskalkietako hitzen jesaiteko; bestalte eztüe züberoarrek, beste zonbaiten gisa, ust'üken beren euskara hoberena zela, aisenik entelegatzen züena baizik; hortakoz Euskara batura igaran beno lehen Iparraldean gipuzkeraz eseiatü diren bakotxak Mirande ta Peillen izan direla badakit, eta Aita Lhanderen eleberri edo roman bakotxa Gipuzkoako euskaran dela Yolanda izenarekin ezagüna. Egiategirekin ikusten dügü Euskara baten egiteko asmüa aspaldikoa dela Züberoan, eta delako nafar-lapurdiera egin zenean züberotar euskara bazter ützi beitzen, ez da harrigarri züberotar edo haien atzerriko semeek euskara batuaren bideetan ibili badira.

Bigerren arrenküra larria Oihenarten, Egiategiren, Intxausperen, Miranderen, Casenave-Harigilen eta oraiko züberotar batzüren idazlanetan ikusten da hots, euskara garbiaren mintzatzan eginahalak egin behar direla eta hobeki idazten ere. Egiategiren kasüan bere libürüa nekez irakurriko dela badaki, ezpeita züberotar hiztegi honik, bena orai, Aita Joanesen biak dütükegularik badakikegü nontik ibili. Egiategik dio:

«Obra dago heben hüskaldün güzier eskentürük, batzü arrotz bazereitze zonbaiti, holako eztirateke hüskara dakiener, berzek aldiz hitz ezezagütiak, Latin Frantzes edo Kastellano ezpazereitze, hüskaratik diradiala, bortxaz aithortü behar dükie.»

Bai gure Egiategi Larramendiren hiztegiak inganatürük uste üken züan — gük latiari hartü hitzak— mintzaje hari eman geneitzola eta Egiategi bere eüskararen garbitü beharrez Larramendin hartü espaniol hitzak ezarten dütü, züberotar eta euskaldün direnen leküan. Eztezagün erri egin hartzaz, zeren gure jakitate oroekin - holako nahaspulak egiten beitütügü.

Azkenik eüskararen garbitarzünaz, xahütarzünaz hainbeste irakurri ondoan erran niro, gük Züberoan bederen kartak agerian ezari dütügüla, bearnesari

jesan hitzen bildüma bat egin berri beitüt eta kastellanoari hartü hitzena egin zahar; bena nonbait, norbaitek erakatsirik Zuberoako euskara gaskoinez kozatüena dela dioie «manexek», ez hegoaldekoek, ezpeitüe aitortü nahi hek gük bezain beste gaskoin hitz badüela eta ez berak. Hori beita besteen küküsoaren ikustea bere bürüko lepozorriari so egin gabe. Nolanahi ere gure Zuberoako eüskaran aüzoer hartü hitz hanitxek beren leküa eta egitekoa badüe, eüskaldüntü beitütügü, bena beharrik gabe aüzoari jesaitea ezta etxeko probetxü, nahiz hitzak eztiren hartüz geroztik bertzak bezala ützültzen.

Eztakit zer datekean Zuberoako eüskararen geroa, aspaldian hilik behar zükean izan Reclus, Vinson eta beste holakoen aztikerien ustez; ez ginirio erran osagarri ederregian dela, ezen ederki idazten den denboran, ezpeita mintzatzenegi. Arrazu züan hortan Egiategik bi hizkuntzetako eskola nahi züanean, bena Züberoan, orozgain eskola püblikoan, eztüe sistema hori honhartü nahi eta jarraikitzen dire —jesto zonbaitez kanpo— gure mintzajearen etsai izaten, holakoak zütüan Egiategik, «traidore izenez» aipatzen, mihian bilorik gabe zorigaitzez berrehün urteren bürüan, ber gaüza erran behar, gük Eüskaltzaleek etsitü gabe ama mintzoaren alte aitzina goazalarik, gure artean dütügüla gure mintzajearen ohorea non den eztakienak.

LABURPENA

Hamazazpigarren mendean da, ederkienik eta lehenbizikorik euskaldunen arteko, ezin ulertzea aztertu; euskararen ugaritasun larriegia, gure hizkuntzaren aldakortasun nahaspilatua euskal idazle zaharrek, gehien bat Iparraldean, prediku luzez baino praktikaz gauditü nahi izan dute: Oihenartek, adibidez, bere neurtitzetan koinê bat darabil, zuberera kutsuko nafar-lapurdiera erabiliz eta botituz., halaber Tartasek garai berean. Hamazortzigarren mendean Egiategik, mauletarrari zor diona aitortzen du, gure lana erraztuz. Egiategik, ordea, ikuspegi zabalagoa du eta euskalki guztiak sartu nahi ditu gure koinean; gero garbizale nahiz, Larramendiren hiztegi zepodunean sartzten da eta konfidantza osoz artean trabatzen.

Egiategik ez du, Oihenarten gisa, aditz trinko naharoen eta oparoen erabiltzeko joerarik, nahiz gaurko zubereratik erabat galdu diren «egon» ta «ibil» en holakoak, nasaiki agertzen diren. Batzutan elipsiaren et'esaldi motzaren bidetik doa.

Gehienetan, ordea, Oihenarten funtsa du gehienik hartzen, lehenik bere lehen liburuan (argitaratu ez diren eta eman ez zituen) atsotitzak hitzemaiten baititu, hirugarrenean idazlearen goraipamen batekin agertzen direnak; bestalde Oihenart baino urrunago joanez, bere hirugarren liburua *Mosde Etxeberriren gogomenak* atsotitz, sententzia motz eta oharrez alfabetoaren ordenean emana baita, baina atsotitz bakoitzak, bere garrantziaren arabera, irauzkin luze edo

laburra baitu. Egiategik kolegioko irakasle bezala erabilitako oharrek dira denetara, eta sententziak filosofia orokorreko, psikologiazko, eskubidezko, kondairazko gaiak ukitzen ditu, beraz Oihenartez eman bildumatik harat, beste bilduma baten egiteko gaia legoke, argitaratu etzen hirugarren liburu zirriborro pottolo horretan. Geroztik Oihenarten edo Egiategiren joerak pastoral «itzultzaileetan» izan ezik, zuberotar idazle gehienetan emango dira.

RÉSUMÉ

C'est au cours du XVII^{ème} siècle que, pour la première fois et de manière remarquable se posent et s'analysent les difficultés d'inter-compréhension en langue basque; l'excès de variabilité inextricable des dialectes entraîna les écrivains du Pays Basque nord —plus par la pratique que par la théorisation— à dépasser cette situation: Ainsi Arnaud d'Oihenart, dans ses vers, emploie une koine navarro-labourdine teintée de souletin., de même en prose Tartas. Au XVIII^{ème} siècle Jüsef Egiategi reconnaît sa dette envers l'écrivain mauléonais précédent; toutefois Egiategi a une vision plus vaste et veut introduire dans notre koine tous les dialectes de la langue. Cependant il tombe dans le piège du purisme tendu par Larramendi et utilise en toute confiance le dictionnaire de ce dernier, destiné à l'opinion savante espagnole, plutôt qu'aux écrivains basques, dictionnaire bourré de neologismes mal construits.

Egiategi n'a pas, au contraire d'Oihenart, de tendances à utiliser des formes verbales synthétiques abondantes et variées, cependant dans ses textes les formes fortes de «egon» et d'«ibil» sont fréquentes, bien que dans le souletin parlé contemporain elles aient totalement disparu. Parfois à l'instar d'Oihenart il emploie des formules concises, des ellipses et davantage de métaphores, de métonymies, de comparaisons que le poète.

Le plus souvent ce sont les idées d'Oihenart qui l'inspirent, en effet ayant annoncé qu'il donnerait ces proverbes à la fin de son premier livre, mais c'est dans son troisième livre (inédit, manuscrit I54 fond.celt.basq. de la Bibliothèque Nationale de Paris) que nous retrouvons cette copie et dans ce dernier livre après un éloge d'Oihenart, il va plus loin que celui-ci puisque chaque proverbe est le départ d'un développement philosophique, psychologique, éthique ou moral: il y aurait en ordonnant ce livre, ce brouillon de livre, de quoi réaliser l'édition du troisième livre d'Egiategi qui serait en basque le pendant catholique des «Tablettes» protestantes de Jacques de Bela, écrites en français.

Ces tendances linguistiques et pédagogiques d'Oihenart et d'Egiategi se retrouveront chez les auteurs souletins de la littérature savante jusqu'à nos jours, à l'exclusion des «adaptateurs -traducteurs» des textes des pastorales anciennes.

RESUMEN

Por primera vez y de manera rotunda, durante el siglo XVII se plantea el problema de la dificultad de entenderse los vascos en su propio idioma; el exceso de variabilidad de los dialectos, lleva —por lo menos en el escrito— a los escritores del País Vasco Norte en superar esta situación, más por la práctica que por la teoría: así Oihenart en sus versos utiliza una koine navarro-labortana con mezcla de suletino también Tartas... En el siglo XVIII Egiategi reconoce la deuda que tiene con el escritor suletino antes citado; pero Egiategi tiene una visión más ancha, más abierta que Oihenart porque quiere incluir en nuestra koine todos los dialectos del euskara. Sin embargo en su idea de mejorar la calidad del idioma, cae en la trampa del diccionario de Larramendi, escrito con destino a los eruditos españoles y no para el uso de los escritores vascos, así que emplea los neologismos mal compuestos del erudito de Andoain.

Al contrario de Oihenart, Egiategi no utiliza con frecuencia las formas sintéticas del verbo, aunque aparezcan las de «egon» (estar) y «ibil» (andar) que ya no existen en el euskara coloquial de Zuberoa. En la manera de Oihenart abunda en fórmulas cortas, elipsis, pero lleva las metáforas, las metonimias y comparaciones quizá más allá que el poeta, sin haber escrito poesía, con exclusión de dos dedicatorias en versos.

Por lo común son las ideas y el fondo «filosófico» de Oihenart que le inspiran. En su tercer libro inédito (B.N. de Paris, del fondo celt.basq.n°154) empieza con un homenaje a Oihenart y una copia de sus refranes; pero en aquel libro va más allá que Oihenart, siendo cada refrán el punto de partida de una reflexión filosófica, ética, psicológica, moral: escardando y escarbando su borron sería el tercer libro de Egiategi, el correspondiente católico (en euskara) de las «Tablettes» protestantes (en francés) de Jacques de Bela, otro suletino. Estas tendencias puristas de unificación del euskara, de pedagogía, se encuentran hasta nuestros días, en muchos escritores suletinos en euskara, no tanto entre los «traductores-adaptadores» del teatro de las pastorales de la tradición (siglo XVIII -XIX)